



PROFIL ETA ROL PROFESIONAL BERRIAK, ZAINKETA ERANTZUTERAKO

PROIEKTUAREN EMAITZA ETA ONDORIO NAGUSIAK | 2021EKO ABENDUA





ZER DA ZAINLAB?

Adinekoen zainketen erronkari epe labur eta ertaineko ager-toki demografikoan erantzuten laguntzeko ikerketa-, ekint-za- eta partaidetza-proiektua.

Lan eta Enplegu Sailak sustatzen eta finantzatzen du, eta gai horretan espezializatutako **Home Care Lab-ek (SSI taldeak)** garatzen du, ibilbide luzea eta aintzatespen profesiona- la duena.



ZERTARAKO ZAINLAB?

Pertsona ardatz duen zaintza-eredu baten garapenean aurrera egiteko eta laguntzeko:

- *Arreta ingurune pertsonalean eta familiarrean lehenetsiz.*
- *Autonomia sustatuz, ahal denean.*
- *Sare soziosanitarioa optimizatzen lagunduz eta*
- *Sektore-, enpresa- eta lanbide-egitura indartuz.*

01. Duintasunez zahartzea herritarren eskubidea delako, eta botere publikoen eta gizartearen betebeharrak etiko eta praktikoa.

02. Urte gehiago bizitzea arrakasta soziala, ekonomikoa eta zientifikoa delako, eta ez delako gainkargatzat hartu behar ongizate-sistemarentzat..



03. Pertsona guztiak zahartzen garelako bereizketarik gabe, eta tratatu bera merezi dugulako

04. Eta gainera, premia demografikoa izateaz gain, lehen mailako aukera ekonomikoa eta enplegu-aukera delako.



IKUSPEGIA ETA JARDUERA EREMUA

- Administrazio eta zerbitzu publiko eskudunekin, erakunde pribatuekin eta hirugarren sektorearekin **hitz eginez eta lankidetzan arituz.**
- **Enplegua sortzearen**, profesionalizatzearen eta **Silver economy delakoak** sortzen **dituen enpresa-aukera** esparruan.



ZER EGINEZ?

- Eskaria eta jasangarritasuna izango duten jarduerak aukituz.
 - Sortzen ari diren lanbide-profilak ezagutuz.
 - Lanpostuetarako eta zeregin berrietarako behar den kualifikazioa identifikatuz.
 - Langileak zer eta nola kualifikatu edo birziklatu ikertuz..
-
- Gai horiei guztiei erantzun nahi die **#Zainlab-ek**, Enpleguaren Euskal Estrategiaren eta hurrengo enplegu-planen esparruan.




PROIEKTUAREN HELBURUAK

Profil eta rol profesional berriak identifikatzea, bai eta horiek adinekoen zaintzaren esparruan ezartzeko behar diren palanka edo bitartekoak ere.

Horretarako:

- Abian dauden proiektuekin bat datorren zaintza-eredu eraldatzaile bat partekatu.
- Behar bezala asebetetzen ez diren beharrak, gaur egun erantzunik ez duten beste batzuk eta pertsonen eskaera berriak identifikatu.
- Teknologiaren ahalmena aztertu eta gizartean esku hartzeko eta zaintza-programak eta -zerbitzuak kudeatzeko zeregin jakin batzuetan teknologia sartzeko aukera aztertu.





ABIAPUNTUKO EGOERA

1



Hiper-zahartzea

2020	Guztira	Giz.	Emak.	% Aid. 2010-2020
65-69	128.401	60.710	67.691	18,19
70-74	120.348	55.430	64.918	31,12
75-79	92.733	40.865	51.868	-2,28
80-84	69.307	27.612	41.695	1,97
> 85	88.643	28.215	60.428	63,07

- Euskadi, 2020an, hiper-zahartutako gizartea izango da, eta EBko zahartze-indize handienetako bat izango du: %23 ingurukoa.
- Euskadiko 65 urtetik gorako biztanleen 1/3 (% 32), 80 urtetik gorakoa da.
- Gehien hazi den adin-taldea, termino erlatiboetan, 85 urtetik gorakoena izan da, 2010 eta 2020 artean %63 hazi baita.

2



Zahartzearen feminizazioa

- Emakumeak 65 urte edo gehiagoko biztanleen % 57 dira; 80 urtetik aurrera, berriz, % 66 (bi heren) dira.
- Emakumeen bizi-itxaropena gizonena baino ia 6 urte gehiagokoa da.



1. Gain-zahartzea

- 2031n, 615.000 pertsona, biztanleriaren % 28,2, 65 urte edo gehiagokoak izango dira.
- 75 eta 84 urte bitarteko biztanleria % 15eko haziko da, eta, 85 eta 94 urte bitarteko biztanleria, % 39.
- 95 urtetik gorakoak hirukoiztu egingo dira.

2. Feminizazio handia, baina sexuen arteko desoreka pixka bat murriztea

- Gizonen eta emakumeen errenten arteko aldea ere murriztuz joango da etorkizunean.

3. Gizarte- eta familia-osaeraren aldaketak eta zainketa krisia

ABIAPUNTUKO EGOERA

3

Ikasketa-maila txikiagoa eta eten digitala

- 65 urtetik gorako emakumeen % 11k besterik ez ditu goi-mailako ikasketak, eta kolektibo horren % 73k soilik lehen mailako ikasketak edo txikiagoak ditu.



4

Batez besteko diru-sarrera oso desberdina adin-tartearen eta generoaren arabera

- 65 eta 75 urte bitarteko adin-taldekoek batez besteko errenta erabilgarria gaintzen dute; 80 urtetik aurrera, berriz, batez besteko errenta % 15 txikiagoa da.
- Gizonen errenta erabilgarriek emakumeenak bikoizten dituzte ia.

5

65 urtetik gora lan-jarduera urria edo batere ez

- 65 urte edo gehiagoko biztanleria landuna % 1,6 baino ez da.
- Diru-sarreraren % 75 eta % 85 artean pentsioetatik dator. Laneko errentak diru-sarrera guztien % 8 dira 65 eta 69 urte bitarteko adin-tartean

6

Pobrezia-maila txikiagoak, baina areagotzen ari diren egoerak



4. Hezkuntza-maila eta maila digitala handitzea

- 2030ean, goi-mailako ikasketak dituzten 65 eta 75 urte bitarteko biztanleak % 45era irits daitezke.
- Eten digitala murrizten joango da.

5. Lan-bizitza luzatzea

- Jarduera-tasa handiagoa, erretiro-adina handitu delako, hezkuntza-maila handiagoa delako, lana eta erakundeak eraldatu direlako eta ekintzailatza bultzatu delako

6. Klase ertaina handitzea vs aberats eta pobreen arteko arrakala

- Alde batetik, errenta handiagoa adin-talde guztietan, eta generoaren araberako diferentzia murriztukoak. Beste alde batetik, pobrezia areagotzea adineko pertsonen kide bakarreko etxeetan.
- Etxe pobreak, etxebizitzaren mantenuan eta elikaduran oinarritutako gastua dutenak, vs Etxe aberatsak, erosteko ahalmen handia dutenak.

ABIAPUNTUKO EGOERA

7



4 adinekoetatik bat, gutxi gorabehera, bakarrik bizi da

- Bakarrik bizi diren adineko pertsonen ia lautik hiru emakumeak dira
- Bakarrik bizi diren 85 urte eta gehiagoko biztanleak hiru aldiz biderkatu dira.

8



65 urtetik gorako populazioaren % 55entzat handia da bizitzarekiko gogobetetasuna, baina balorazio hori osasunak baldintzatzen du

- Denbora librearekiko gogobetetasuna handiagoa da 65 urte edo gehiagoko pertsonentzat. Emakumeek gizonek baino denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan eta pertsonak zaintzen, eta gutxiago aisialdi aktiboan.
- Gizarte-kohesioaren eta segurtasunaren ikuspegi positiboa. Huteskundeetan parte-hartze handiagoa, baina esku-hartze soziopolitiko aktibo txikiagoa.
- Harreman pertsonalen balorazioak behera egiten du adinak gora egin ahala. Hurbileko sare mugatuagoa eta kontaktu pertsonalen maiztasun txikiagoa.

9



Gainerako etxeen antzeko ekipamenduak, baina aurrerzteko eta efizientzia hobetzeko gailu gutxiago

10



Mugikortasun-eredu oso desberdinak: desplazamenduen % 51 oinez egiten dira, eta % 33k garraio publikoa erabiltzen dute.



7. Zahartze aktiboa, kontsumo-ereduen aldaketak eta bizitza betea


8. Kolektibo horren ahalduntzea gizarte-bizitzan.

- Silver economyren kontsumo eta aukera gehiago: Diseinua eta moda, kosmetikako produktuak, turismoa, aisialdia, hezkuntza, produktu eta zerbitzu espezifikokoak (domotika eta robotika, telelaguntza, zerbitzu pertsonalak).

9. Gizarte adintsuago batentzako hirigintza lagunkoia eta ekipamenduak

- Hiri atseginak, hirigintza irisgarria, adineko pertsonen beharren arabera diseinatuak
- Etxebizitza eta bizitoki irisgarriak eta berritzaileak (mugikortasun-arazoak). Alternatiba berriak: Boom Town kontzeptua; Eskariaren arabera zerbitzuetarako gailu mugikorak erabiltzea; belaunaldi anitzeko komunitateak...

ABIAPUNTUKO EGOERA



10. Osasun- eta ongizate-eskari handiagoa eta zahartze osasungarria

- 65 urteko edo gehiagoko biztanleen eskaria handitu da osasunean eta ongizatean
- Ongizatearen eta osasunaren eskaintza eraldatu egin da. Aldaketak profesionalen eta pazienteen arteko interakzioetan, arreta ez-presentziala areagotu da, baita prebentzio-medikuntza ere, eta telemedikuntzaren, telefono adimendunen, diagnostikorako eta zaintzarako biosentsoreen eta abarren erabilera ere bai.

11. Bizi-itxaropena eta mendekoen kopurua handitu da

- Bizi-itxaropenak hazten jarraituko du, eta horrek esan nahi du mendekoen kopurua 100.000 pertsona ingurukoa izan litekeela: gaixotasun kronikoez edo iraupen luzekoek gora egingo dute, narriadura kognitiboak areagotuko dira, baita gaixotasun mentalak ere.
- Zahartze aktibo eta osasungarriko politikek eragin positiboa izango dute gaixotze-tasa murrizteko eta bizi-itxaropena handitzeko, muga kronikorik gabe.

ABIAPUNTUKO EGOERA

13

Jarduera ekonomikoaren bilakaera desberdina gizarte-zerbitzuetan

- 10 urtez hazi dira adinekoentzako ostaturik gabeko gizarte-zerbitzuen jarduerak, baina behera egin du adinekoentzako egoitza-establezimenduetako laguntza-establezimenduen kopuruak.
- Euskadiko gizarte-zerbitzuetako jardueren establezimenduen % 31 (519) adinekoentzat dira.

14

Sektoreko enplegua zenbatesteko zailtasuna

- Gizarte-zerbitzuen sektorean enplegua biltzen duten datu-iturriak askotarikoak dira. Erregistroak izan daitezke, hala nola Gizarte Segurantzako AEKko afiliazio-datua, non kotizazio-altaren epigrafe bat jasotzen baita «Gizarte Zerbitzuen Jarduerak !» atalean. Beste iturriak dira, EINek edo Eustatek egindako estatistikak eta inkestak.. Euskadiren kasuan, gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika dugu, eta bertan zentroei, plazei, erabiltzaileei, langileei (propioak eta azpikontratatuak) eta gizarte-zentroetako gastuei buruzko informazioa jasotzen da. Bestalde, BAlk okupazioen araberako datua jasotzen du (5. taldea): “Pertsonak zaintzen dituzten langileak osasun-zerbitzuetan”, eta “Pertsonak zaintzen dituzten beste langile batzuk”. Beste epigrafe bat (9. taldea) da etxeko lanak, non 1/3 adinekoak zaintzea dela kalkulatu den. Epigrafe horiek dira Enpleguaren Euskal Behatokiak (Futurelan-ek) 2030eko proiektioak egiteko erreferentziatzat hartzen dituenak
- Kontuan hartuta ZainLab lanbide-profilak aztertzeke eta etorkizuneko prestakuntza-beharrak ezagutzeko proiektua dela, Futurelanen proiektioen metodologia aipatutako epigrafeetako okupazio-datueta aplikatzea erabaki da.

JOERAK
2030

12. Langileen eskaria handitzea

Futurelanen (Lanbideren Enplegu Behatokia) 2020tik 2030era bitarteko proiektioek honako hau adierazten dute:

- Enplegua % 14 haziko da «Osasun-zerbitzuetan pertsonak zaintzen dituzten langile»en artean (gizarte-zerbitzuetako lanbideetan, oro har). Gaur egun lan egiten dutenen ia % 50 ordezkatu beharko da.
- «Pertsonak (etxez etxe) zaintzen dituzten beste langile batzuei» dagokienez, % 31ko hazkundea espero da 2030era arte. Ordezkapen-beharrak % 60 baino zertxobait gehiago direla kalkulatu da.

13. Enplegu informala erregularizatzea

- Europa osoak zainketa-arloko profesionalen gabeziari helduko dio. Sektorea profesionalizatzeke politiken beharra.
- Eskaria handitzearekin batera (Futurelanen proiektioen arabera, 2020tik 2030era bitartean % +14koa izango da “Osasun-zerbitzuetako pertsonen zaintzako langileen artean” eta % 31koa “Pertsonak zaintzeko beste langile batzuen artean”), kontuan hartu beharko dira sektorean ordezkapen-beharrak, % 60 inguru kalkulatu delarik.

ABIAPUNTUKO EGOERA

15



Arreta-profil eta behar desberdinak

- Arreta integrala eta giza arreta bizitzaren amaieran
- Mendekotasun-maila handitzea, dementzia-prozesuak edo bestelako narriadura kognitiboak areagotzea
- Kronikotasuna eta ahultasun funtzionala eta soziala areagotzea
- Pertsonen eta beren familien beharrian berriak, eta mendekotasun-egoeran dauden eta pluripatologia kronikoak eta prozesu neurodegeneratibo garrantzitsuak dituzten pertsonen kopurua handitu egin delako.
- Arreta-profil desberdinak dituzten egoeren aniztasunari erantzutea

16



Zainketa-eredu banatua, batez ere familia-eremuan oinarritzen dena

- Euskadin dagoen zainketa-eredua bi eremutan banatuta dago oraindik: osasuna eta gizartea. Eredu horretan, zainketen bolumen handiena familia-eremutik eta mendetasunari buruzko legean aitortutako prestazio ekonomikoetatik lantzen da.

17



Teknologia aukera gisa

- Sektoreak eraldaketa teknologikoari heltzen dio. Teknologia prebentzio-, mantentze-, laguntza- eta errehabilitazio-elementu gisa.



14. Ereduaren aldaketa

- Koordinazioa, lankidetzeta eta baterako sorkuntza
- Lehen mailako osasun-arretako profesionalen eta tokiko komunitatearen arteko lankidetzeta inoiz baino garrantzitsuagoa izango da.
 - Arreta bateratua
 - Profesional izatetik «famielarekin batera sortzea» izatera
- Alderdi emozionalen, erlazionalen, etikoen eta deontologikoen garrantzia. Ospitaleko egoitza-eredu batetik zerbitzu-zentro moderno batera, AICP giltzarri dela arreta biopsikosoziala eta «bizi-kalitatea» ardatz duena

15. Cambio de rol profesional

- Gaitasun berriak eta kualifikazio handiagoa. Beste inprofesional batzuei aholkularitza eta laguntza ematearekin eta praktikak tegratzeko gaitasunarekin lotuagoak dauden rolak.

16. Zerbitzuen digitalizazio handiagoa

- Zaintzen arloan etorkizuneko profesionalen faltari dagokionez:
- Ezkutuko ekonomiari eta sektorearen profesionalizazioari ekitea
- Sektorea erakargarri egitea zaintzarekin zerikusirik ez duten diziplinetako profesionalak sartzeko
- Belaunaldi gazteenentzat erakargarri egitea.

- **Marketin-posizionamenduko estrategia berritzaileak aplikatzeko beharra**, adinekoei zuzendutako produktu eta zerbitzu berriak sortzeko aukerak argi eta garbi erakusteko eta, batez ere, urteei bizitza emateak dakarren lorpenari balioa emateko



- Sektore dikotomizatua zerbitzu publikoen eta partikularrek zuzenean kontratatutako zerbitzu pribatuen artean.
- Profesionalizazioarako joera-aldaketa PKren bidez, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren esparruan lan egiten duten pertsonen.
- Birziklitzeko eta gaitasunak eguneratzeko etengabeko prestakuntza antolatze beharra.

- Adineko pertsonak kolektibo heterogeneoa dira, behar desberdinak dituzte eta erantzuteko baliabideak anitzak eta askotarikoak dira.
- Baliabideen arteko elkar ezagutzeko beharra (sektore barrukoak eta sektore artekoak), baliabide egokira bideratzeko.


- Adinekoen eten digitala murrizteko joera, baina harmonizazio pedagogikoaren beharra.
- Profesionalen eginkizun aktiboa eraldaketa digitaleko prozesuetan.
- Zaintza-zerbitzuak emateko eta kudeatzeko gaitasun digitalak
- Etikaren garrantzia IKTen erabilerari dagokionez.

ETXE BIZITZA: ERRONKAK

Mantentzeko, kontserbatzeko eta egokitzeko informazioa, aholkularitza, prestakuntza eta/edo laguntza integrala jasotzea:

- Laguntzak-diru-laguntzak eta izapideak
- Aurrekontuak eta fakturak
- Energia aurrezteko neurriak
- - Etxebizitzaren, laguntza-produktuen, teknologia domotikoen eta ingurumen-kontrolako sistemen egokitzapen posibleak
- Profesionalak eta enpresa hornitzaileak/bideratzaileak

Etxean egin beharreko esku-hartzeak egitea (eraberritzeak, konponketak, egokitzapenak, instalazioak, etab.), lehen aipaturako etxebizitzaren beharrezko ezaugarriak ziurtatzeko.



Etxebizitza aldatzeko informazioa, aholkularitza eta/edo laguntza integrala jasotzea

- Etxebizitzaren ezaugarri egokienak, kasu bakoitzean.
- Egon daitezkeen modalitateak: aukera ugari, hala nola adin-murrizketak dituzten erkidegoak (edo heldu aktiboak), adinekoentzako apartamentuak, cohousinga, egonaldi luzeko tarifak dituzten hotelak, tutoretzapeko etxebizitzak, etxebizitza komunitarioak, etxe partekatutako, egoitza-zentroak.
- Aldaketarako hautatutako etxebizitza-aukera.



**ETXEBIZITZA
ZERBITZUAK**

1.- LEIHATILA BAKARRA/AUZOKO BULEGOA

- Adineko pertsonen zaintzaren zerbitzura jarritako baliabideei eta programei buruzko informazioa biltzea
- Aholkularitza hainbat alderdi eta premiatan: aholkularitza soziala, psikologikoa, hainbat motatako teknikaria: administratiboa, juridikoa, mantentze-lanetakoa.

2 - 1.- ADINEKOENTZAKO ETXEKO ESKU-HARTZEAK GAUZATZEKO ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK

- Arazoak detektatzen eta egoera baloratzen laguntzea
- Mantentze-zerbitzuak emango lituzke, proiektuak idaztea

3 - ETXE ADIMENDUN BATERAKO SOLUZIO TEKNOLOGIKOETAN ESPEZIALIZATUTAKO ZERBITZUAK

- Zerbitzuak, produktuak eta ekipamenduak diseinatzea, baterako sorkuntzan oinarrituta
- Teknologia domotikoak eta ingurumena kontrolatzeko sistemak instalatzea, segurtasuna, erosotasuna eta erosoitasuna, energia aurrezteak, komunikazioak, autonomia eta abar ekarriko dituztenak, bai eta horien erabilera irakatsiko dutenak ere.

4 - ETXEBIZITZA ALDATZEKO HIGIEZINEN ZERBITZU ESPEZIALIZATUAK ADINEKOENTZAT

- Beharrak identifikatzea
- Bilaketan orientazioa eta laguntza ematea, eskura dauden aukerak kontuan hartuta

OSASUNA: ERRONKAK

Balorazio integrala izatea

- Adinekoek arlo klinikoan, funtzionalean, mentalean, sozialean eta espiritualean dituzten arazoak, beharrak eta gaitasunak identifikatu behar dituzte, haien ongizatea eta autonomia errazteko.

01

Osasuna sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko esku-hartzeak jasotzea

- Adinekoek esku-hartze pertsonalizatuak, globalak eta diziplina artekoak behar dituzte, egindako ebaluazioaren arabera, osasuna eta gaixotasunen prebentzioa sustatzeko.

03

Osasunaren arreta eta zaintza integrala jasotzea

Adinekoek esku-hartze pertsonalizatuak behar dituzte, honako hauei dagokienez:

- haien kronikotasun-egoera edo ad hoc ekintza puntualak (errehabilitazioa, ad hoc) planteatzen dituzten osasun-arazo larriekin lotutako beste egoera batzuk.
- hauskortasun funtzionala
- osasun psikikoa eta kognitiboa
- bizitzaren amaierako zainketa aringarrien beharra eta espiritualtasuna
- sendagaiak eta sendagaiekiko atxikidura

Baina baita beste esku-hartze espezializatu batzuk ere, maila fisikoan egokiak direnak.

02

04

Autonomia pertsonala hobetzeko eta/edo mantentzeko esku-hartzeak jasotzea

- Adinekoek esku-hartze pertsonalizatuak behar dituzte, egindako ebaluazioaren arabera, gaitasun eta muga funtzionalak kontuan hartuko dituztenak, bai eta aldagai pertsonalen, ingurumenekoen eta portaerazkoen garrantzia ere, beste profesional batzuekin lankidetzan.



**OSASUNA
ZERBITZUAK**

1 - BALORAZIO INTEGRALEKO ZERBITZUAK

- Diagnostiko dinamikoa eta egituratua, dimentsio anitzekoa eta diziplinar-tekoa, arlo klinikoan, funtzionalean, mentalean, sozialean eta espiritualean dauden arazoak, beharrak eta gaitasunak detektatzeko eta kuantifikatzeko aukera emango duena, eta, horrekin batera, ongizatea eta autonomia sustatzen dituzten diziplina arteko esku-hartze prebentibo eta/edo aringarriko estrategia pertsonalizatuak lantzea.
- Adinekoentzako Arreta Plana (APM) hedatzea.

2 - OSASUN INTEGRALAREN SUSTAPENEAN ETA PREBENTZIOAN ESPEZIALIZATUTAKO ZERBITZU KOMUNITARIOAK ETA/EDO ETXEZ ETXEKOAK

- Esku-hartze pertsonalizatuak eta globalak agindu eta gauzatzea, beste zerbitzu batzuekin lankidetzan.
- Esku-hartzeen eta neurketa-, kudeaketa- eta analisi-parametroen jarraipena egitea, eta informazioa partekatzea.
- Osasuna sustatzeko eta gaitotasunak prebenitzeko estrategiak, emaitza globaletan oinarrituta (Big data)

3 - AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEN ESPEZIALIZATUTAKO ZERBITZU KOMUNITARIOAK ETA/EDO ETXEZ

- Ebaluazioaren arabera, gaitasun eta muga funtzionalak kontuan hartzen dituzten esku-hartze pertsonalizatuak eta globalak agintzea eta gauzatzea, baita aldagai pertsonalak, ingurumenekoak eta portaerakoak ere, beste profesional batzuekin lankidetzan.
- Esku-hartzeen eta neurketa-, kudeaketa- eta analisi-parametroen jarraipena egitea, eta informazioa partekatzea.


4 - ARRETA ETA ZAINTZAN ESPEZIALIZATUTAKO ZERBITZU KOMUNITARIOAK ETA/EDO ETXEZ ETXEKOAK

- Informazioaren jarraipena, kudeaketa eta partekatzea, honako hauei dago-kienez:
 - ad hoc unean uneko ekintzak eskatzen dituzten kronikotasun-egoerak eta osasun-arazo akutuak.
 - hauskortasun funtzionala.
 - osasun psikikoa eta kognitiboa.
 - bizitzaren amaierako zainketa aringarrien beharra eta espiritualtasuna.
- sendagaiak eta sendagaiekiko atxikidura. Esku-hartze espezializatuak egitea, maila fisikoan.

KOMUNITATEA: ERRONKAK

Inguruko baliabide, zerbitzu, programa, laguntza eta abarrei buruzko informazioa, aholkularitza, prestakuntza eta/edo laguntza integrala jasotzea.

- Kontsumoa/Erosketak
- Kultura eta aisia
- Aholkularitza ekonomikoa/finantzarioa/juridikoa/ondarezkoa.
- Digitalizazioa
- Lana/Enplegua
- Bizitza osoa
- Herritarren parte-hartzea
- Beste pertsona batzuekin elkarreragiteko aukerak



Baliabide, zerbitzu, programa eta abar lagunkoiak eta koordinatuak izatea.



**KOMUNITATEA
ZERBITZUAK**

1. LEIHATILA BAKARRA/ AUZOKO BULEGOA

- Baliabideei, programei eta aholkularitza ekonomiko/finantzarioari/juridikoari/ondareari buruzko informazioa biltzea.
- Laguntza:
 - Kontsumoa/Erosketak
 - Kultura eta aisia
 - Digitalizazioa
 - Lana/Enplegua
 - Bizitza osoa
 - Herritarren parte-hartzea

2- SERVICIOS ESPECIALIZADOS DE PREVENCIÓN Y ABORDAJE DE LA SOLEDAD NO DESEADA

- Bakardadea eta/edo isolamendu soziala detektatzea
- Bakardadea eta/edo isolamendu soziala prebenitzeko estrategiak
- Kontaktu sozial esanguratsuak (presentziala eta birtuala) sortzea eta sare komunitarioa sortzea bultzatzen duten programak.

3 - BIZITZA OSOA ERRAZTEN ES- PEZIALIZATUTAKO ZERBITZUAK

- Bizitzako etapa berri baterako trantsizioa babestea (boluntariotza, etab.).
- Bizialdi osoko ikaskuntza.
- Jarduera interesgarrietan parte hartzea
- Ahalduntzea eta laguntzea, bizi-proiektu pertsonalaren garapenari eta bizitza autonomoari dagokienez.

4 - HERRITARREN PARTE-HARTZEA BULTZATZEN DUTEN ZERBITZUAK

- Adinekoak ahalduntzea eta laguntzea, bizitza publikoko eta komunitate-bizitzako erabakiguneetan parte hartzeari dagokienez.

5 - ESPAZIO PUBLIKOA ANTOLATU, BERRANTOLATU, EGOKITU ETA/ EDO MANTENTZEN DUTEN ZERBIT- ZUAK

- Antolaketako, berrantolaketako eta/edo egokitapeneko beharrak detektatzea eta esku-hartzeak egitea, komunitate-bizitza, auzoen gizarte-dinamizazioa eta kulturarteko eta belaunaldien arteko espazio partekatutako sortzea erraztuko duen ingurune fisiko inklusiboago baterako.
- Diseinatu, elkarrekin sortuz

1

PROFESIONAL BERRIAK

Deskribatutako zerbitzu/programa batzuei erantzungo dieten lanbide berrien diseinua da, eta enplegua, lana eta hezkuntza erregulatzeko sistemekin lan egin beharko da

- BIZI-INGURUNEAREN KUDEATZAILEA
- HIRI-BERRONERATZEAREN KUDEATZAILEA

2

ROL BERRIAK

Helburua da sektoreko gaur egungo profesionalen gaikuntza handitzea bertan aurreikusten diren premia eta zerbitzu berriei erantzungo dieten lanbide-jardun berrietan. Aukera profesional berriak irekiko nituzke, orain arte ez zeuden eskari berriei erantzuteko gai izanik

- KONEKTORE KOMUNITARIOA
- LAGUNTZAILEA
- GAITASUN SANITARIOAK DITUEN PROFIL SOZIALA
- GAITASUN SOZIALAK DITUEN PROFIL SANITARIOA
- HEZITZAILE DIGITALA
- HERRITARREN PARTAIDETZARAKO TEKNIKARIA
- BIZITZA OSOKO TEKNIKARIA
- KOLEKTIBO ESPEZIFIKOETAN ESPEZIALIZATUTAKO PROFESIONALAK: ADIB.: ZAINKETA ARINGARRIAK
- INFORMATZAILE-ORIENTATZAILEA INFORMAZIO-PUNTUETAN

3

BESTE PROFESIONAL BATZUK SEKTOREAN SARTZEA: ZILARTZEA

Beste sektore batzuetako gaur egungo profesionalen gaikuntza handitu nahi da zaintza-sektoreko funtsezko elementuetan. Profesional horiei begirada zilartu bat eranstea ahalbidetzen du, haien zerbitzuak gero eta gehiago eskatzen duen kolektibo bati egokitu ahal izateko.

- OSASUN INTEGRALEKO PROFESIONALAK (BIOP-SIKOSOZIAL ESPIRITUALA: (ADIBIDEZ: KIROLA)
- ONDAREAREN KUDEATZAILEA
- ETXEBIZITZAREN MANTENTZE-LANEN KUDEATZAILEA
- IRAUNKORTASUNAREN KUDEATZAILEA
- FINKEN ADMINISTRATZAILEA
- ARKITEKTURAKO PROFESIONALAK
- DISEINUKO PROFESIONALAK
- ERAIKUNTZAKO PROFESIONALAK
- EKONOMIA- ETA FINANTZA-AHOLKULARIAK
- IRAKASLEAK

02. Zaintzari prestigioa ematea

- Zainketen arloko lanbideei duintasuna ematea, arlo sozial eta ekonomikotik

04. Konponbideetan berritzea

- Diziplina aniztasuna sustatzea.
- Osasun-sisteman alta eman behar zaien eta etxera itzuli ezin diren pertsonentzako bitarteko gizarte-baliabideak
- IKTak aprobetxatzea eta teknologoek bete beharreko beharrak ulertzea

06. Beharrei erantzuteko prestakuntza eta gaitasunak

- Benetako beharretara egokitutako prestakuntza-plan digitalak eta zeharkako gaietan konpetentzia eskuratzea
- Titulazioak eguneratzea
- Profesionalen etengabeko prestakuntza
- Enplegurako prestakuntza

08. Digitala palanka gisa

- Zerbitzu guztiek barne hartzea gaikuntza digitala.
- Digitalaren eta analogikoaren arteko bizikidetza (gaitasun digitalik ez duten pertsonentzat)

01. Zahartzea aukera gisa

- Enplegu berrietarako sektore anitzeko aukera eta zaintza-eredu berria
- Premia: zahartzearen ikuspegi berritzaila, adinekoren ahalduntzea eta laguntza-sistema publikoen egokitzapena

03. Administrazioak aktibatzea, eremu horretan jarrera proaktiboagoa izan dezaten

- Zeharkako administrazio-prozesuak aktibatzea.
- Prozedurak sinplifikatzea
- Ekitatea zaintzea
- Zainketetara bideratutako baliabide publikoen koordinazio eraginkorra bultzatzea
- Fiskalitatea gizarte luze baten orientaziora egokitzea


05. Proiektu arrakastatsuek partekatzea eta eskalatzea: I+G+b ezartzea

- Proiektu pilotu arrakastatsuek sustatzea eta erreplikatzeko
- Lehen mailako arreta soziosanitarioko unitateak baino gehiago hartzen dituzten koordinazio-pilotuak bultzatzea.
- Ezagutzaren transferentzia handiagoa. Lehendik dauden gizarte-mugimenduak eta -eragileak erabiltzea.
- Baliabideen arteko ezagutza teknikoak.

07. Irisgarritasun unibertsala

09. Elkarlanean aritzea eta elkarrekin sortzea

- Behatoki publikoak eta enpresa pribatuak inplikatzeko
- Hirugarren sektorea: lankidetza publiko-pribatua
- Planak diseinatzeko eta gauzatzeko parte-hartze prozesuak (erabiltzaileen parte-hartzea)
- Herritarrak aktibatzea
- Boluntariora sustatzea



Administrazio-, arau- eta aurrekontu-mugak


- Burokrazia, administrazio-prozesu motel eta konplexuak
- Korporatibismoa eta aldaketarako erresistentzia
- Aurrekontu-ahalmena (baliabide ekonomiko erabilgarriak) eta araudia

Gabeziak zerbitzuen pertsonalizazioan

- Adineko pertsonak ezin dira kolektibo homogeneo gisa ulertu
- Lanpostuen malgutasunik eza beharretara egokitzeko
- Zaintzako profesionali “ahotsa emateko” beharra, benetako premiei dagokienez.
- Benetako beharrak/hautemandako beharrak

Oztopoak gizartean

- Herritarrak sentsibilizatzeko beharra
- Herritarren parte-hartzea falta da, arloa
- Adinkeria



Diziplinarteko koordinazio eskasa eta kudeaketa-tresnak

- Ez dago diziplina anitzeko eta sektore arteko arreta-eredurik
- Sailen proaktibotasunik eza eta zeharkako komunikazioa.
- Elkarrekin lan egiteko ohitura falta.
- Sistemen arteko ezjakintasuna: baliabideak, funtzioak, etab.
- Lankidetzeta eta koordinazio publiko-pribatua hobetzeko beharra

Profesionalak, profil berriak eta gaitasunak falta dira

- Zaintzeko profesionalen eskasia
- Kualifikazioak espezializatzeko beharra, premietara egokitzeko
- Titulazio berrien erregulazioak osagai teknikoa du, baina baita politikoa ere.
- Gaitasun digitalik eza profesionalen artean
- Gizarte-eremuan datua kudeatzeko ohitura txikiagoa
- LOMLOE: enplegurako prestakuntza hezkuntzara pasada
- Motibazioa galtzeko arriskua, aurrerapenik ezagatik

Oztopoak pertsonengan

- Oztopo pertsonalak (gogo-aldartea)
- Eten digital soziala eta kulturala
- Desorientazioa mendekotasuna sortzen den unean

Datozen urteetan zainketen arloan irekiko diren enplegu aukerak identifikatzeko, kontuan hartu dira demografia-joerak eta antzemandako beharrak, eta azken hori esker, sortu beharreko zerbitzu berrien proposamen bat egin da, bai lanbide tradizionalagoetatik, edota profil profesional berrien esploraziotik etorri daitezkeenak. Azterketarako hartu diren faktore esplikatzailerak izan dira: eskariaren hazkundera, batez ere faktore soziodemografikoetatik eta beste faktore batzuen elkarreraginetik eratorritakoak (ekonomikoak, teknologikoak, politikoak...); adinekoak zaintzeko egungo profesionalen zati handi bat ordeztzeko beharra, erretiroagatik edo irteera profesionalengatik; zerbitzu publikoetatik etxeko arretaren ratioak handitzea edo hobetzea; zainketara dedikatzen diren gaur egungo etxeko langileen profesionalizatu ezker. Baita beste aukera batzuk ere hartu dira kontuan: egungo lanbideak silverizatuzetik edo gaur egun udalerrri batzuetan pilotuen formatuan testatzen ari diren figura profesional berriak zabaltzetik etor daitezkeenak, hain zuzen

1

JOERAZKOA. Egungo enplegu kopurua handitzea joerazko egoera batean

Lanbideko Prospektiba Behatokiak egindako 2030erako lanbideen araberako eskariaren estimazio-ereduaren entzumenetan oinarritzen da. Eredu horrek bilakaera historikoa eta etorkizuneko hazkunde-aurreikuspenak hartzen ditu kontuan (joera demografikoak, ekonomikoak, teknologikoak, antolamendukoak...). Datorren hamarkadan, Futurelan-en proiektioek gizarte-zerbitzuetako lanbideetarako (Pertsonak gatz-zerbitzuetan zaintzen dituzten langileak eta Pertsonak zaintzen dituzten beste langile batzuk proiektioek adierazten dute batez beste % 22,8ko hazkundera izan dela.(8.152 enplegu)

2

ORDEZTEA. Ordezteengatiko enplegu-aukerak (erretiroak + txandakatzea)

Euskadik lan-indarraren zahartze-prozesu bizkorrari ekingo dio, eta kalkuluen arabera, 500.000 pertsona inguru erretiratuko dira datozen 10 ur- teetan, gaur egungo langileen % 51. Gizarte-zerbitzuetako okupazioetan (aurreko atalean adierazitakoak), ordezkapen-ratioa are handiagoa da; izan ere, proiektatutako adinaren arabera aurreikusitako erretiroei dagokienez, Behatokiak kontuan hartzen du sektore horretako batez besteko errotazio-ratioa beste sektore batzuetakoa baino handiagoa dela. Beraz, kasu honetan, emaitzak adierazten du beharrezkoa izango dela, aipatu- tako arrazoiengatik, pertsonen % 60 ordezkatzeko (Euskadiko lan-indar osorako aurreikusitakoa baino % 11 gehiago) (21.338 enplegu)

3

RATIOAK HANDITZEA. Etxeko arretaren ratioak handitzea

Euskadiko ELZren estaldura-indizea (erabiltzaileak/biztanleak > 65* 100) 1,64 zen 2019an, eta Espainiakoa, berriz, 4,93 (SISAAD datuen arabera). Ratioak ez ezik arreta-denbora ere kontutan hartu beharko litzateke, beraz, babes guztiekin, asmoa da adieraztea etxeko zaintza-politikek aurrera egin ezker aurre ikusten diren bezala, pertsona gehiago beharko direla zerbitzuak betetzeko. Horregatik, inguruabar hori kontuan hartu nahi izan da, eta enpleguen gorakadarako hurbilketa bat egitea hipotesi honekin (estatuaren batez besteko estaldura-ratioa erreferentziatzen hartuta) (5.000 enplegu)

4

PROFESIONALIZAZIOA. Etxeko langileek etxeetan emandako zainketen profesionalizazioa

2020an, 22.825 pertsona zeuden erregistratuta Euskadin etxeko langile gisa. 1/3 inguru, zainketan egiten egon liteke. Zainketa horiek profesionalizatzeko, profesionaltasun-ziurtagirien bidez, arretaren kalitatea hobetzea eta sektorea eta lan-baldintzak duintzea ahalbidetuko luke. Zainketen heren hori erreferentziatzen hartuta, 7.500 pertsona inguru profesionalizatu beharko lirateke datozen urteetan. (7.500 enplegu)

5

PROFIL PROFESIONAL BERRIAK. Profil profesional berriek landutako zerbitzu-jardura berriak

Hala eta guztiz ere, zaintza-eredua eraldatu egin da, eta horrek esan nahi du profil profesional berriak sortzeko aukera dagoela, egungo eta etorkizuneko eskaerei erantzun berritzaileak emateko, orain arte zainketen esparruan sartuta ez zeuden sektoreak, baina eremu horrekin zer ikusi zuzena dituzten profesioetatik bilakaera bat eman ezker. (Pilotuak zabaltzeko hipotesia jarraituz: 2.649 enplegu)

6

LANBIDE TRADIZIONALAK ZILARTZEA. "Zilartutako" lanbide tradizionalak landutako zerbitzu-jardura berriak

"Zilartutako" lanbide tradizionalak jorratuko lituzketen zerbitzu-jardura berriak sartzearen aldeko apustuan oinarritzen da, hau da, adinekoak zaintzeko edo artatzeko behar espezifikoak estaltzera bideratutakoak. Gaur egungo lanbideak berro-rientatuz rol profesional berriak garatzea ahalbidetuko duten gaitasunak eskuratzea aurreikusten du, bai zaintzaren profil tradizionalak dagokienez (etxez etxeko laguntza-laguntzaileak, erizainak, gizarte-langileak, gizarte-hezitzaileak, etab.), bai zaintzarekin zuzenean lotuta ez dauden beste jardura ekonomiko batzuetatik datozen profilei dagokienez (arkitektoak, psikologoak, finka-administratzaileak, merkatariak, abokatuak, gestoriak...).

JOERAZKOA 8.152		01		ORDETZEA 21.338		02		HANDITZE RATIOAK 5.000		03		PROFESIO- NALIZAZIOA 7.500		04		PROFIL BERRIAK 2.649		05	
OSASUN-ZERBITZUETAN PERTSONAK ZAIINTZEN DITUZTEN LANGILEEN LANBIDE-TALDEA		PERTSONAK ZAIINTZEKO BESTE LANGILE BATZUK (ETXEZ ETXETIKO LANGILEAK)		OSASUN-ZERBITZUETAN PERTSONAK ZAIINTZEN DITUZTEN LANGILEEN LANBIDE-TALDEA		PERTSONAK ZAIINTZEKO BESTE LANGILE BATZUK (ETXEZ ETXETIKO LANGILEAK)		PERTSONAK ZAIINTZEKO BESTE LANGILE BATZUK (ETXEZ ETXETIKO LANGILEAK)		ETXEKO LANGILEAK		PROFIL BERRIAK TOKIKO PROIEKTU PILOTUETAN							
Hazkundera eskaera handitzeagatik: % 14 2020ko enpleguak: 18.321 Enpleguaren hazkundera 2030erako: + 2.708		Hazkundera eskaria handitzeagatik: % 31 2020ko enpleguak: 17.394 Enpleguaren hazkundera 2030erako: + 5.444		2020ko enpleguak: 18.321 Ordezkapen-tasa (erretiroak + txandakatzea % 60) Ordeztu beharreko langileak: 10.661		2020ko enpleguak: 17.394 Ordezkapen-tasa (erretiroak + txandakatzea % 60) Ordeztu beharreko langileak: 10.677		2020ko enpleguak: 17.394 Estaldura-ratioa 1,6tik 4,9ra pasatzea (2019ko datuak) ELZren arreta-ratioak handitzea: +5000		2020ko enpleguak: 22.825 1/3 zaintzan aritzen da. Enpleguen proiektzioa 1/3ko etxeko langileak profesionalizatu: 7.500		Proiektatutako profilak, pilotuen estaldura-ratioa erreferentziatzen hartuta. Laguntzailea: 1.350 Konektore komunitarioa: 1.125 Mantentze-lanen kudeatzailea: 172 Profil berriak EAE osora zabaltzea: 2.649							

"ZILARTZEA"			06		
ERRKALIFIKAZIOAK					
ETXEBIZITZA	BIZITZA OSOA KOMUNITATEAN	OSASUNA			
Finken administratzaileak	Gizarte-langileak	Gizarte-langileak			
Etxebizitzak birgaitzeko gremioak	Etxez etxeko laguntzaileak:	Etxez etxeko laguntzaileak:			
Arkitektoak	Herritarrek parte hartzeko teknika-riak	Herritarrek parte hartzeko teknika-riak			
Barne-diseinatzaileak	Gizarte-hezkuntza-zako profesionalak	Gizarte-hezkuntza-zako profesionalak			

Erabilitako hipotesiak kontuan hartuta egindako enplegu-aukeren analisiaren ondorio gisa, 2030. urtean zainketen esparruan sortuko diren enplegu-aukerak 40.000 baino gehiago direla kalkulatu da.

INTEGRATU BEHARREKO EREMUAK	
<p style="text-align: center;">1. DIGITALIZAZIOA</p>	<p>Iraultza teknologikoak aukera bat izan behar du zaintzan txertatzeko.</p> <p>Ez du pertsona zaintzan ordeztuko, baina lagundu egingo du prebenitzen, esku hartzen eta langileari harreman pertsonalean arreta handiagoa jartzen.</p> <p>Etorkizunean, eten digitala murriztu egingo da, Internet aldez aurretik ezagutzen duten profesionalak eta erabiltzaileak iritsi direlako (gaur egun, 55 eta 65 bitarteko pertsonen % 90ek erabiltzen du Internet).</p> <p>Teknologiak ohiko zereginak “optimizatzeko” aukera eman beharko du, zaintzak berezkoa duen eta profesionalak bakarrik eskain dezakeen arreta pertsonal eta giza arreta handiagoaren alde. Jarduketan erregistro digital egokiak, era berean, erabiltzailearengan segurtasun handiagoa eta jarduketa zehatzagoa ahalbidetzen du.</p> <p>Testuinguru horretan, profesionalak gaitasun digital handiagoa izan beharko dute, analisirako gaitasuna eta, are gehiago, beren lana erraztuko duten aplikazioak programatzeko gaitasuna. Gainera, digitalizatutako testuinguru batean, profesionalak errazte- eta pedagogia-lanak egin beharko dituzte erabiltzaileekin, eta, horretarako, trebetasun espezifikoak eskuratu beharko dituzte.</p>
<p style="text-align: center;">2. DATUA KUDEATZEA</p>	<p>Ingurune teknologiko horrek informazio eta datu gurutzatu ugari sortuko ditu interkonektatutako sistemen artean.</p> <p>Datu-bolumen handiak aztertzeko eta prozesatzeko teknologia nagusiak eta aztertutako datuei balioa emateko beste tresna batzuk menderatzeak erabakiak hobeto hartzeko aukera emango die erakundeek.</p> <p>Sektoreko profesional on batek metodo analitikoak ulertzeko eta erabiltzeko gai izan beharko du, kudeaketaren kalitatea, eraginkortasuna, segurtasuna eta zehatzasuna hobetzeko aukerak aurkitu ahal izateko arretan.</p> <p>Machine Learning teknikak erabiliko dituzte enpresetan garapen-aukerak aurkitzeko.</p> <p>Gaur egun, inoiz baino garrantzitsuagoa da datuak kudeatzeko estrategia sendoa izatea, erakundeek gero eta konfiantza handiagoa baitute balioa sortzeko aktibo ukiezinetan.</p>
<p style="text-align: center;">3. BERRIKUNTZA ETA IKERKETA</p>	<p>Zaintzen sektorean, arreta-eredua berrikusten ari dira, eta ikertzaile-talde onak behar dira, etorkizunera begira.</p> <p>Iraupen luzeko laguntza eta zaintzen eredua eraldatzeko, komunitateko laguntza-zerbitzu pertsonalizatueterako trantsizio-konponbide berritzaileak ezarri beharko dira, ezagutza trukatzeko, ikaskuntzak eta ebidentziak ateratzeko eta sisteman hobekuntzak identifikatzeko.</p> <p>Alde batetik, ikerkuntza eta, bestetik, emaitza zientifiko onenetan oinarritutako praktika, pertsonaren segurtasuna hobetzen duten jarduketekin; horiek dira kalitatezko arretaren oinarritzko zutabeak. Beti humanizazioaren paradigmarekin.</p> <p>Testuinguru horretan, garrantzi handia hartzen du zaintza-eredu berrietan aurrera egiteak, espazioen ezagutza eta koordinazioa aprobetxatuz, hezkuntzaren, gizartearen eta osasunaren munduaren artean sinergiak sustatuz.</p> <p>Eraldaketa desberdinekin eboluzionatzeko gai diren profesionalak beharko dira, hala nola etxebizitza eta bititoki berritzaileen eskaririk sortutakoak, mugikortasun-irtenbide pertsonalizatuak, etab.</p>

INTEGRATU BEHARREKO EREMUAK	
4. INGURUNE OSASUNGARRIA: SENDOTASUN FISIKOA ETA MENTALA	<p>Zahartze-prozesua areagotu egingo da, eta biztanleria horren jarduera-tasa handiagoa izango da; testuinguru horretan, egungo lan-indar handia ordeztu egin beharko da. Gainera, erretiratzeko adina handitzea aurreikusten dute erakundeek. Hau da, erakundeen adinaren kudeaketak pisu handiagoa hartuko du, eta, horrekin batera, gero eta presentzia handiagoa izango du lan-ingurune osasungarrien sorrerak.</p> <p>Erabiltzaileen eskakizun-mailak eta haien profilak osasun mentaleko gaixotasunetara, gaixotasun kroniko edo iraupen luzeko gaixotasunetara eta abarretara gero eta gehiago bideratuta duen bilakaerak arreta berezia jarri beharko dute profesionalen autozaintzan, sendotasun fisiko eta mentalean oinarrituta.</p> <p>Nork bere burua zaintzea lehen urratsa da zaintzaileentzat; izan ere, arrisku handia dago lanbidean zehar gaixotasunen bat izateko, eta, horren ondorioz, osasun fisiko eta emozionalari mesede egiten dioten jarduera pertsonalak egin behar dira.</p>
5. ESPIRITUALTASUNA	<p>Espiritualtasuna gizakiaren funtsezko hiru ezaugarritan oinarritzen da: zentzua, lotura eta transzendentzia bilatzea</p> <p>Gaixotasun larri edo terminalei aurre egiten zaienean, bizitzaren zentzuari, helburu baten bilaketari eta maite diren pertsonetara edo transzendentetara loturaren garrantziari buruzko galderak berez sortzen dira harremanean.</p> <p>Espiritualtasunaren garapena pertsona askoren osasunari laguntzen dion faktoretzat hartzen da, eta bereziki premiazkoa da bizitzaren azken etapan. Izatearen dimentsio garrantzitsuago bati erantzutea da helburua.</p> <p>Adinekoen behar espiritualei berariaz aurre egiteko, beharrezkoa da, gainera, profesionalak pertsonalki aurre egiteko lan bat egin izana, dimentsio horren premiekiko sentikorra den kontzientzia garatuz.</p>
6. BIOETIKA	<p>Beharrezkoa da dimentsio etikoa sartzea lanbide-garapenean eta -jardueran, horretarako gaitasunak eskuratuz. Gaitasun horri esker, lanbidean aritzean sortzen diren balio-gatazkei aurre egin dakieke.</p> <p>Helburua da profesionalari Bioetikari, autonomiari eta erabiltzailearen eskubideei, konfidentzialtasunari eta abarri buruzko ezagutzak eskaintzea.</p> <p>Profesionalak eskura duen informazioa babestu behar du, eta intimitatea eta pribatasuna ere babestu behar ditu erabiltzailearen aurrean.</p> <p>Garrantzitsua da profesionalentzat autonomia eta eskubideak kudeatzeko gaitasuna eskuratzea, lanbide-jardunean erabakiak hartzerakoan.</p> <p>Profesionalarekin lan egin behar da, bere lan-prozesuan begirada etikoa jartzeko gai izan dadin.</p>

INTEGRATU BEHARREKO EREMUAK	
<p>7. ROL-ALDAKETA: RESKILLING ETA UPSKILLING</p>	<p>Erronka berriek profesionalaren rola aldatzea eskatzen dute, gaitasun berriak etengabe sartu beharko baititu. Lanbide-profilak berrasmatu behar ditugu, etorkizun hurbilean enpresek eskatuko dutenera hurbiltzeko. Horretarako, bi bide aipatzen dira: egungo lanpostuetara hobeto egokitzen diren trebetasun berriak ikastea edo guztiz desberdina den lanerako trebetasun berriak eskuratzea.</p> <p>Ikasteko gaitasuna funtsezkoa izango da profesionala ziurgabetasun eta etengabeko aldaketa-inguruneetan eraldatzeko.</p>
<p>8. KULTURA JASANGARRIA ETA OSASUNGARRIA</p>	<p>Kultura korporatibo iraunkorra duten enpresak erresistenteak dira eta balio ekonomikoa sortzen dute; ekosistema osasungarriak eta komunitate indartsuen zati bat izateagatik aitortzen dira.</p> <p>Erabiltzaileei arreta eskaintzean ere (energia-kontsumoak, birziklapenak, etab.), oso lagungarria izan daiteke begirada iraunkorra izatea.</p> <p>Horretarako, profesionalak ikuspegi hori ezagutu eta eduki ahal izateko gaitasuna izan beharko du.</p> <p>65 urtetik gorako biztanleen osasunean eta ongizatean eskaria areagotuko da, eta eskaintza eraldatuko da.</p>
<p>9. KUDEAKETA-EREDUA ALDATZEA</p>	<p>Hezkuntza-maila handiagoa eta egoerei aurre egiteko baliabide gehiago dituzten belaunaldiak ugaritu dira. Egiaztatu da erabiltzaileek eta/edo haien familiek gero eta itxaropen handiagoak dituztela, bai nahi duten bizi-kalitatean, bai jasotzen dituzten zainketen profesionaltasunean. Kalitate handieneko zaintzak eta egoera indibidualetara hobeto egokitzen direnak.</p> <p>HKEEren ezarpena bultzatu behar da, pertsonen arretarako funtsezko palanka gisa.</p> <p>Zainketen kostua handitzeak aldaketak eragingo ditu zerbitzuen estalduran, beharrei erantzuteko formula berrien bidez.</p> <p>Gizarteak bere estrategia aldatuko du: Hirigintza lagunkoia, etxebizitza eskuragarriak eta berritzaileak, mugikortasun irtenbide berriak garatzea.</p> <p>Zerbitzuen kalitatean esku hartzen duten sektoreak konektatzeko gaitasuna funtsezko eskumena izango da sektorean.</p> <p>Testuinguru horrek guztiak arreta jarri behar du profesionalen gaitasun kudeatzaileen sustapenean, bai eta zerbitzuen etengabeko hobekuntzan ere.</p>
<p>10. KULTURARTEKOTASUNA</p>	<p>Gero eta globalizatuagoa eta kultura anitzagoa den ingurune baten aurrean gaude. Zainketen sektorea ez dago testuinguru horretatik kanpo, eta, horregatik, zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaileek eta zaintzak ematen dituzten profesionalak gero eta gehiago erantzuten diote kultura-aniztasun garrantzitsuari.</p> <p>Egoera horrek errealitate horiek hobeto ezagutzea eskatuko du, eta, horrela, haien potentziala hobeto egokitu eta integratzea, identitateak, prestakuntzak, nazionalitateak eta kulturak sor ditzaketen mugarik gabe.</p>

• SARE OROKORRA

- *Adelina Comas - Herrera-Assistant Professorial Research Fellow. Care Policy and Evaluation Centre (CPEC). London School of Economics*
- *Fernando Consuegra - SARTUko koordinatzaile nagusia.*
- *Alvaro Mosquera - Aspaldiko eta Portugaleteko udal-zentro sozialen zerbitzu psikosozialeko arduraduna. Deustu Unibertsitateko irakaslea.*
- *Jose Ezkerra - Lares-Euskadiko presidentea*
- *Jaime García - EDE Fundazioa*
- *Maite Sancho - ACPko aditua*
- *Sara de la Rica - EHUko katedraduna eta irakaslea. ISEAK Fundazioko zuzendaria*
- *Felix Arrieta - Deustu Unibertsitateko irakaslea. Gipuzkoa Deusto-Forum-en zuzendaria*
- *Joseba Zalacain - Eguia-Careaga Fundazioko zuzendaria*
- *Teresa Martínez - Gizarte Eskubide eta Ongizate Saila. Asturiasko Printzerria*

• ELKARRIZKETA

- *José Antonio de la Rica - Arreta Soziosanitarioko zuzendaria. Osasun Saila - Eusko Jaurlaritza.*
- *Marian Olabarrieta Gizarte Zerbitzuen zuzendaria. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Zerbitzuen Saila. Eusko Jaurlaritza.*

- *Ignacio de la Puerta. Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren zuzendaria. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*
- *Pablo García Astrain. Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendaria. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*
- *Leyre Madariaga. Eraldaketa Digitalaren eta Ekintzaitzaren zuzendaria. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.*
- *Gloria Múgica - Zuzendari Nagusia. Lanbide*
- *Maite Martínez-Granado. Lan Aktibazioko zuzendaria. Lanbide*
- *Juan Felipe García. Enplegu zuzendaria. Arabako Foru Aldundia*
- *Susana González- Enpleguko zuzendaria. Bizkaiko Foru Aldundia*
- *Belen Larión - Haurrak Babesteko eta Gizarteratzeko zuzendaria - Gipuzkoako Foru Aldundia.*
- *Patxi Leturia - Indarkeria matxistaren eta Gizarteratzearen Biktimarentzako Gizarte Babeseko Zerbitzuko burua. Gipuzkoako Foru Aldundia*
- *Rakel San Sebastian-Zuzendari Nagusia. Adinberri Fundazioa.*
- *Idoia Sanz - Silver Economy enpresako arduraduna. Adinberri Fundazioa.*
- *Mari Jose Barriola. Ekonomia Zirkularraren arloko arduraduna. Tknika.*
- *Arantza Zamora. BioTk laborategiko arduraduna. Tnika.*
- *Dorleta Goiburu- Eudeleko teknikaria.*
- *Boni Cantero - Gizarte politiketako, Adinekoen eta Haurren Saileko zuzendaria. Vitoria-Gasteizko Udala.*
- *Txema Duque. Gizarte Zerbitzuetako zuzendariorde teknikoa. Bilboko Udala*

- *Mikel Kerexeta. Gizarte Zerbitzuen Arloko zuzendaria. Getxoko Udala*
- *Almudena Estebarena - Adinekoen eta Desgaituen Zerbitzuko burua. Donostiako Udala*
- *Jone Pariza - Gizarte Ekintza Saileko teknikaria. Barakaldoko Udala*
- *Oihane Ugarte - Gizarte langilea. Laudioko Udala*
- *Iñaki Barrenetxea - Gizarte Arloko teknikaria. Arratiako Mankomunitatea*
- *Gizarte Langintzako Lanbide Elkargoko Zuzendaritza Batzordea*
- *Ainhoa Eguren. Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialeko gerentea*
- *Begoña Rueda. Bizkaiko Psikologia Elkargo Ofizialeko Batzarra*
- *Gorka Maiz - Presidente. Osatzen. Familia eta Komunitate Medikuntzako Euskal Elkarte*
- *Jon Irazusta - Katedraduna eta Fisiologia Saileko irakaslea Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. EHU*
- *Ana Rodríguez - Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Fisiologia Saileko irakaslea. EHU*
- *Unai Ayala - Ingeniaritza Biomedikoko Gradu irakasle eta ikertzailea. MU*
- *Arantza López de Heredia MUko irakaslea eta Silver Economyko (NIC) Ekintzaitza Teknologikoko Masterreko koordinatzailea.*

• SEKTORE ARTEKO MAHAIAK

• EUSKO JAURLARITZA

Lan eta Enplegu Saila

- *Alfonso Gurpegui - Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea*
- *Paco Pedraza - Enplegu eta Gizarteratze zuzendaria*
- *Helena Flores - Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzako teknikaria*

Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako Saila

- *Marian Olabarrieta. Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

- *Mertxe Fernández - Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzako teknikaria*
- *Ainara Sertutxa - Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzako teknikaria*
- *Maite Mendizabal. Hiri berroneratze Zerbitzuko arkitektoa. Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza*
- *Uralde Montón. Hiri-berroneratze Zerbitzuko arkitektoa. Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.*
- *Nafarrate. Hiri berroneratze Zerbitzuko arkitekto teknikoa. Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.*

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

- Ana Vitorica-Responsable Programas para la Transformación Digital
 - **BetiOn**
 - Leire Tamara - Komunitateko koordinatzailea
 - **EHU/UPV**
 - Jon Irazusta - Biologian doktorea eta Fisiologia irakaslea. Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea EHU
 - **Kronigune**
 - Ane Fullaondo. Ikertzailea
 - **Lanbide**
 - Montserrat Fernández - Lan Orientazioko Arloa
 - **Tnika**
 - Arantza Zamora
 - Gorka Gaztelumendi-
 - Jonathan Chinchilla-
 - Irantzu Tellería
 - Beatriz Zamacola
 - Maria Calleja
- **OSAKIDETZA**

OSI Bilbao-Basurto

- Joseba Olaguenaga Mate

OSI Bidasoa

- Montse Pérez - Bidasoako etxeko ospitaleratze zerbitzuako medikua. Berrikuntzako erreferentea

OSI Donostialdea

- Carlos Barriuso - Integrazioko zuzendaria

OSI Alto Urola-Goierri

- Ana Calvo - Medikuntzako zuzendaria
- Olga Doiz - Pertsonaleko zuzendaria.

- **FORU ALDUNDIAK**

Arabako Foru Aldundia

- Patricia Andrés - Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zerbitziburua.
- Belén Otero - Enplegua Sustatzeko, Merkataritzako eta Turismoko Zuzendaritzako teknikaria.

Bizkaiko Foru Aldundia

- Susana González. Enplegu zuzendaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

- Belén Larrión - Haurrak Babesteko eta Gizarteratzeko zuzendaria
- Idoia Sanz - Adinberri Fundazioko Silver Economyko arduraduna

- **UDALAK ETA TOKI-GARAPENeko AGENTZIAK**

Bilboko Udala

- Eider Bilbao - Bilboko Udal Etxebizitzaren arkitektoa

Gasteizko Udala

- Elena Prado - Osasun Zerbitzuko psikologoa. Adinekoak

Donostiako Udala

- Begoña Calleja - Donostiako erretiratuen elkarteei laguntza teknikoa eta adiskidetasuna hobetzen laguntzeko udal-zerbitzua

Portugaleteko Udala

- María José Blanco. Alkateordea eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi ordezkaria

Beterri-Buruntzako udalak

- Andoni Zulaika - Gizarte Enplegu eta Ekintzailetzako teknikaria

DEBEGESA

- Esther Zarrabeitia - Hirigintza eta Birgaitze Arloko arkitektoa

- **ENTIDADES**

APTES - Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkartea

- Adriana Martínez - Managing Zuzendaria

Bizkaiko Gizarte Hezitzaileen Lanbide Elkargoa

- Iratxe Aguilar

Bizkaiko Abokatuen Elkargo Profesionala

- Antonio Tena

**EFEKEZE - Euskadiko Familia eta Komunitate Erizaintzako Zientzia Elkar-
tea**

- Junta Directiva

Helduak Adi

- Antonio Campos. Lehendakaria

Tecnalia

- Jose Alberto Martínez. Project Manager Osasun Dibisioan

Urbanbat

- Arrate Presilla - Arkitektoa

Zahartzaroa - Geriatriako eta Gerontologiako Euskal Elkartea

- Pilar Sorando - Lehendakaria

